

EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILEKO HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN
HEZKUNTZA DEPARTAMENTUKO EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR
INSTITUTUAREN ARTEKO BERARIAZKO LANKIDETZA HITZARMENA

Iruñean, 2012ko uztailaren 5ean

BILDU DIRA:

Alde batetik, Blanca Urgell Lázaro andrea, Eusko
Jaurlaritzako Kultura sailburua.

Beste aldetik, José Iribas Sánchez de Boado jauna,
Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria.

Bi aldeek, zeinek beren gobernuen ordezkari moduan
jarduten duten, egintza hori gauzatzeko ahalmena dute eta
ondorio horretarako.

ADIERAZTEN DUTE:

Espainiako Konstituzioak, Gernikako Estatutuak eta
Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko
Lege Organikoak autonomia erkidegoei aukera ematen dietela
elkarlanean aritzeko eta Hitzarmen honetan ordezkaturiko bi
autonomia erkidegoei dagokienez euskararen arloan eskumenak
izateko.

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak
elkarlanaren bidea aukeratu dutela, beti abiatuz erakundeek
elkarri dioten errespetutik eta bi erkidegoen errealitate
politiko eta soziolinguistiko desberdinetatik, legeek
erkidego bakoitzari ematen dizkioten eskumenen esparruan.

Eusko Jaurlearitzak eta Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikaren arloan elkarlanean aritu nahi dutela, Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak eta Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariak 2009ko uztailaren 3an sinatu zuten Lankidetzarako Protokolo Nagusiko hirugarren klausulako C letran ezarritakoari jarraikiz.

Eusko Jaurlearitzak eta Nafarroako Gobernuak egoki dakusatela lankidetzaren teknikorako esparru hauek zehaztea: euskararen babesa eta garapena, ikerketa, dokumentazioa, eta ezagutzen eta informazioaren trukea.

Komeni dela bi administrazioak elkarlanean aritzea, beharrezkoak ez diren bikoiztasunak eta gastuak saihesteko eta ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko, gorago aipatutako Lankidetzarako Protokolo Nagusian zehazturik dauden arrazionaltasuna, soiltasuna, gardentasuna eta baliabideen ekonomia gordez.

Bi aldeek erabaki dutela Lankidetzarako Berariazko Hitzarmen hau sinatu eta honako KLAUSULA hauek betetzea:

LEHENA.- Xedea

Lankidetzarako Berariazko Hitzarmen honen xedea da bi erakunde sinatzaileen arteko lankidetzaren bultzatzea euskarari dagozkion alderdi jakin batzuetan. Administrazio bakoitzak Hitzarmen honetan bildutako programak egin edo garatuko ditu, nor bere ahal ekonomikoen heinean.

BIGARRENA- Ezarpen esparruak:

Ezarpen esparruak ondoko hauek dira:

A) Euskara helduei irakastea.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) bitartez, eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua ados daude bi administrazioek helduentzako euskararen irakaskuntzan egiten dituzten ekintzetan lankidetzan bultzatzeko.

Hori dela-eta, bi aldeek adierazten dute ondoko arlo hauetan elkarlanean segitu beharra dagoela:

a) Bi erkidegoetan helduei euskara irakasteko curriculuma garatu eta parekatzea.

b) Irakaskuntza horretan aritzen diren irakasleen berariazko prestakuntza. Bi administrazioek beren langileei aukera emanen diete helduentzako euskararen irakaskuntzan administrazio bakoitzak antolaturiko prestakuntza ekintzetan parte hartzeko, betiere kontuan hartuz jatorrizko administrazioak oro har prestakuntzarako ezarrita dituen bertaratze irizpideak eta prestakuntza ematen duen administrazioak jarduera horretan langileak hartzeko duen gaitasuna.

c) Curriculumeko materialak prestatu eta hedatzea, bi administrazioek hala egitea egokitzen jotzen denean.

Curriculumean eta curriculumeko materialetan argi ezarriko da Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea bi entitate politiko, instituzional eta administratibo ezberdin direla.

B) Hizkuntza gaitasunen ebaluazioa eta egiaztapena.

Era berean, elkarlanean arituko dira bi administrazioak euskararen gaitasun-maila ebaluatzeko eta egiaztatzeneko probak eta sistemak diseinatzerakoan Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Marko Bateratua oinarri harturik, eta bi administrazioek elkarrekiko ezagutza emanen diete luzatzen dituzten tituluei.

C) Ikerketa eta mapa soziolinguistikoak.

Bi administrazioak elkarlanean arituko dira administrazio bakoitzak eskuratzen dituen datuak erkidego bakoitzean euskararen errealitatea islatzeko erabil daitezkeen.

Hala, azterlan eta ikerketa soziolinguistikoen gaineko informazioa trukatu dute eta esperientziak partekatuko dituzte, adierazle soziolinguistikoen sistemak eta hizkuntza politika prestatzeari eta garatzeari dagokionez.

Ahal dela azterlanak erkidego bakoitzean egiteko datak egokituko dira, dela euskararen inkesta, euskararen mapa soziolinguistikoa egiteko, dela aurrekoak osabeteko dituzten bestelako eragiketa estatistikoak egin behar direnean.

Arlo honetan argi ezarriko da Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea administrazio publiko desberdinak dituzten bi erakunde desberdin direla.

D) Euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzulpenak.

Bi administrazioak elkarlanean arituko dira arlo hauetan:

a) Espainiako eta atzerriko legeak, baita Europar Batasuneko itun eta zuzentarauak ere, gaztelaniatik euskarara eta euskaratik gaztelaniara itzultzea.

b) Zinpeko itzultzaile eta interpreteentzako egiaztapenei elkarrekiko ezagutza ematea.

Bi administrazioetako itzulpen zerbitzuek egindako itzulpenek balioa izanen dute bi erkidegoetan.

E) Itzulpen memoriak.

Bi aldeek hitzematen dute itzulpen memoriaren banku publikoa sortu eta mantenduko dutela, bi administrazioetako itzultzaileek beren lanean erabil dezaten; bi administrazioek sortutako itzulpen corpusa banku horretara bilduko da.

F) Terminologia.

Bi administrazioek erabaki dute terminologiaren arloan modu eraginkorrean elkarlanean arituko direla, terminoen onarpena, glosarioen trukea eta haien hedapena modu bateratuan egin dadin.

Horretarako, deialdia egin ez duen administrazioaren ordezkari batek gonbita izan dezake beste administrazioaren Terminologia Batzordean aritzeko.

G) Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia.

Bi aldeek hitzematen dute Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien esparruan dauden baliabideen inbentarioa eginen dutela, horretan interesa duten erabiltzaileek errazago eskura ditzaten eta baliabide horiek euskaraz sortu edo egokitzeko ahaleginetan bikoiztasunik egin ez dadin.

H) Euskara nazioartean hedatzeko programak eta euskarazko irakurleak atzerriko unibertsitateetan.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Etxepare Euskal Institutuaren eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren arteko elkarlana sustatuko du. Erakunde hauek eskumena dute euskara eta euskal kultura nazioartean hedatzeko eta, hartara, bi erakunde horietako edozeinek helburu horiekin prestatzen dituen programetan parte hartzera gonbida dezake bestea.

I) Hizkuntzaren kultura-sustapena.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza elkarlanean aritzen ahal dira euskararen kultura-sustapeneko programak egiten edo haietan parte hartzen; arloak, honako hauek:

a) Ekinaldien eta materialen hedapena.

b) Bi administrazioek antolaturiko ekitaldietan parte hartzea.

HIRUGARRENA- Indarraldia.

Berariazko Lankidetzaz Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatu eta 20 egunera. Urtero luzatzen dela ulertuko da, isilbidean, ez badu behinik behin aldeetako edozeinek indarririk gabe utzi nahi duela adierazten, gutxienez indarraldia bukatu aurretik hilabeteko epean.

LAUGARRENA- Lankidetzaz Hitzarmenaren jarraipena.

Lankidetzarako Berariazko Hitzarmen honen betetze-mailari jarraipena egiteko, bi aldeek adostu dute alde biko Batzorde Mistoia eratzea. Batzorde horrek lau kide izanen ditu: bi, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak izendatuak, eta beste bi, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak izendatuak.

Batzorde horretan parte har dezakete gorago adierazi diren HABE edo Etxepare Euskal Institutuko ordezkariak, landu beharreko gaiak haiek egotea eskatzen duenean.

Hitzarmen honetan zehaztutako aplikazio esparruetako bakoitza garatzeko erkidego bakoitzeko organo eskudunek alde biko Batzorde Mistoari nork bere esparruko jardura proposamena eta bakoitzak egindakoaren txostena bidaliko diote.

Batzorde Mistoari dagozkio ekitaldi bakoitzean egin beharreko jardura zehatzen azterketa eta proposamena egitea eta Hitzarmen honetan jasotako erabakien balorazioa egitea, haien alderdi pedagogikoak, antolaketa alderdiak eta administrazio alderdiak kontuan hartuz.


Batzorde Mistoia bilduko da, gutxienez urtean behin eta alde bakoitzak eskatzen duen guztietan. Bilera bakoitzeko

akta idatziko da. Batzordeak izanen dituen egitekoak gauzatzeko alde bien zerbitzu teknikoen laguntza izanen du.

Lankidetzarako Berariazko Hitzarmen hau alda daiteke bi aldeak aldaketarekin ados badaude; halakoetan, behar den eranskina gehituko zaio Hitzarmenari.


Aurrekoarekin bat eginez, Lankidetzarako Berariazko Hitzarmen hau izenpetu dute, euskaraz zein gaztelaniaz, bi aletan, gorago aipatutako lekuan eta egunean.

NAFARROAKO GOBERNUKO
HEZKUNTZA KONTSEILARIA



José Iribas Sánchez de Boado

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA
SAILBURUA



Blanca Urgell Lázaro